

noauea


**Martxa eta manifestazioa,
pentsiodunen alde**

**Urriaren 27an
manifestazioa,
'Erraustegia gelditu'
lemapean**

**Ostegun honetan hasiko
dira Aginagako jaiak**



**Urbil-Usurbil KE eskubaloia taldeko senior neskak
denboraldiari ekiteko gogoz dira**



TAILANDIA



NOAOA
BIDAIAK

943 373 613

BIDAIAK
TALDEAN

IRTEERA MAIATZEAN

LASARTE ORIATIK, NOAOAK GIDATUA

info@noaoa.eus

noaoa.eus

Auto Guria s.l

Auto Konponketa
Pre I.T.V.
Marka guztiak

943 363 298

Zelai-haundi 11, Osinalde Pol. USURBIL

KALITATEZKO PRODUKTUEKIN ESTILISMOA ETA ESTETIKA LANTZEN DITUGU



**UDARA ETA GERO, NEGURA
BEGIRA....ZAINDU ZURE AZALA**

GOLDEN PEN mikro-zulaketa dermiko eta oszilazio bertikalean oinarritutako teknologia aurreratuarekin, tratamenduen eraginkortasun handiagoa lortzen dugu:



- Aktiboen xurgatzea hobetzen du
- Kolageno eta elastina berrien sorkuntza aktibatzen du
- Orbain, akne eta ildaska markak murrizten ditu.
- Espresio lerroak lausotzen ditu (ezpainak, begiak...)
- Azala tentsatu eta gazteagotzen du
- Orbanen sorkuntza ekiditen du
- Zelulitisa ezabatzen laguntzen du

Eguerdian irekita! Nagusia 8, Usurbil - Tel: 943 36 36 41

Albiste iruditan

N-634 errepidea, normaltasunera itzuli ezinean

Egunero eta eguneko edozein unetan auto-ilara luzeak ditugu asteotan N-634 errepidean, Troia eta Txikiardi arteko bide zatian egiten ari diren lanengatik. Langileak ez badira, semaforo batek kudeatzen du ibilgailuen joan etorria, erreil bat itxita baitago. Obra hauen eremutik hurbil, susto handia izan zen astelehen goizean. Donostiarako noranzkoan, bide zati horretatik igarotzeko zain zen auto batek su hartu baitzuen, matxura mekaniko baten eraginez.

N-634 errepidea guztiz itxi behar izan zuten. Ondorioz, errepide honetan, eta azken asteotan sarritan egiten ari diren moduan, bide alternatibo baten bila Zubietan eta Santuenea lotzen dituen herri bidea erabiltzea hautatu zutenek ere ilara luzearekin topo egin zuten. Eguerdi partearako errepidea ireki zuten. Suteak eraginiko arazoa konpondua egon arren adi; lanetan segitzen dute Troia-Txikiardi artean.



Astelehen goizean auto batek su hartu zuen eta errepidea moztu egin behar izan zuten.

Laburrean

Urriaren 10ean, Ziortzako guraso bilera

Ikasturte berriko plangintza aurkezteko guraso bilera deitu du Ziortza Gazte Elkartek urriaren 10erako (asteazkena) arratsaldeko 18:00etan Potxoe-n.

Urriaren 20an, 1955eko kinto bazkaria

Urriaren 20an batuko dira Atxega jate-txean. Izen emateko azken eguna, urriak 11. Izen emateko:

Maribi Arrospide 675 006 445.
Patxi Arruti 615 760 458.

Urriaren 21ean, 1946an jaioetakoen bazkaria

Urriaren 21ean bilduko dira Antxeta jatetxean. Izen emateko deitu aurrez, urriaren 14a baino lehen, Laurok liburu dendara edo 943 363 448 telefono zenbakira.

noqua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 // elkartea@noqua.eus // www.noqua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkariko koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noqua.eus

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noqua.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa: Iñaki Irazusta, Jon

Galbete.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbietan, Maddi Galbete,
Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,
Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon
Etxabe, Alazne Begiristain, Denis
Elortza, Pello Aranburu, Xabier
Aranburu, Inma Balda, Luis Ara-
nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen
Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta
Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udalak



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herrira!



Imanol Ubeda

Harrapakariak eta harrapakinak

Iraila hasieran, *Oreina* filma ikusteko aukera izan genuen. Prentsako kideei zuzenduriko emanaldi bat antolatuta zuten Donostiako Trueba zinema aretoan, eta hantxe bertaratu ginen. Kazetari izatearen abantaila bakanetakoa. Handik gutxira, Koldo Almandoz zuzendariarekin batzeko txanda eskatu genuen. Askorako eman zuen solasaldiak. Duela bi aste plazaratu genuen elkarriketa eta geroztik bat baino gehiago hurbildu zait galdezka: “zer moduz dago? Eta, zer kontatzen du?”.

Xabier Leteren kanta batekin azaldu nezakeen:

Ez zaidazu galdetu gauza ilun guztien arrazoi gordea, nora ote dijoan denbora aldakorrek daraman bidea.

Baina orojakileen plazan poeten hausnarketek oso gutxi kointizatzen dutenez, bestelako argibiderik eman beharrean nago. Filmaren pasarte batekin azaltzen saiatuko naiz. Lasai, ez dut spoilerrik egingo. Momentu jakin batean, paddle-surf egiten ari den koadrila bat agertuko da pantailan. Mapil inguruan, Orian behera. Erriberan, aldiz, anguletara doazen lagun bi alabaten ondoan. Paddle-surf taulen gainean datozen gazteei be-

gira. Adi. Isilik. Geldi.

Sekuentsia honek ez du berebiziko garrantziarik. Baina esanguratsua da oso. “Pasarte horrek bazuen dialogo bat”, Koldo Almandozek halaxe aitortu zigun grabagailua itzali eta gero. “Baina ez zuen funtzionatzen eta azkenean kendu egin genuen”; sekuentzia elkarriketarik gabe utziz. Mutu baina ozen.

Gazteak paddle-surf egiten eta angulariak txalupan. Aurrez aurre. Dialogorik gabe. “Mundu berean, parez pare, bi mundu. Zertarako azalpen gehiago?”. Filmaren muntaian askotan gertatu zitzaiola aitortu zigun zinema zuzendari donostiarrak. “Horrelako proposamen

batek ikuslearen partehartzea eskatzen du; bere intuizioa jokoan jarri, filmaren hariak bere kabuz lotu ditzan. Ez zait hainbeste interesatzen gauza guztien zergatiak azaltzea, edota bizitzaren berebizikoak diren dramak erakustea. Pelikularen asmoa da bizitzaren egunerokotasuna azaltzea”.

Hortaz, ez galdetu gauza ilun guztien arrazoi gordeaz eta Oriako paduran eta periferian murgildu zaitez. Harrapakarien zein harrapakinaren hegaldi iheskorren lekuko izango zara.

PD: Ostiral honetan Aginagan eskainiko dute *Oreina*.

Maialen Unanue

Garazi Lizaso Manterola

Aritz Gorriti

Imanol Ubeda

Luis Aranalde

Luken Arkarazo

Elkar eta Gureak Michelin ondoan kokatzeko hirigintza hitzarmena, behin betiko onartua

“Sekulako operazioa, Usurbil-entzat, eskualdearentzat eta herrialdearentzat”, hitzokien definitu zuen irailaren 25eko udalbatzaren osoko bilkuran Usurbilgo alkate Xabier Arregik, udal talde guztiek aho batez eta behin betiko onartu zuten hirigintza hitzarmena. Hitzarmena Michelinek, Gureak Lanean S.A.-k, Elkarlanean Fundazioak eta Usurbilgo Udalak adostu dute. Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-87 (Zapategi) eremuko

hirigintza ezaugarrien Aldaketa Puntuala sustatuko da.

Degradatutakoa birgaitu

Eta aldaketa puntual honi esker, ondoko irudian duzuen Michelinek erabili gabe duen lur eremu horretan kokatuko dira etorkizunean Elkar eta Gureak. Degradaturiko espazio bat birgaituko dela eta lanpostu ugariren eremua izango dela nabarmendu zuen alkateak joan den asteko osoko bilkuran.



Udal talde guztiek aho batez onartu zuten hirigintza hitzarmena.

* Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOUAik ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatuta eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: urriak 11. Idatzia ekartzeko azken eguna: urriak 8.

Pintadak egin dituzte Txirinbolo dendan

Itxura honekin esnatu zen igandean Txirinbolo jostailu denda; ataria, “Alde hemendik” zioen pintadarekin, atean diana bat marraztuta “alde” hitza zuela azpian, saltokiaren izenaren kartelaren zati bat ere margo gorritz estalia eta sarraila silikonarekin. Margoketok larunbatetik iganderako gauean izan ziren.

“Guregatik hainbeste lan hartu, hainbeste ordu sartu, dena bolondres moduan... eta horrela bukatu behar du denda batek? Hain zaila da hitz egitea?”, zioen Txirinboloko langileak sare sozialen bidez.

Iazko maiatzean, Herritzartu Elkartek antolaturiko herri galdeketatik astebetera, egun Txirinbolo kokatua dagoen lokal bera erasotu zuten. Egoitza atarian zegoen galdeketa lotutako pankartari su eman zioten ezezagunek. Inguruan zebiltzan herritarren sua itzaltzeko ahalegin azkarrari esker ez zuen kalte material larrikir eragin, nahiz sutea inguruko



Pasa den asteburuan, pintada mehatxagarriak agertu ziren dendaren atarian.

etxebizitzetara zabaltzeko arrisku handia izan zen.

Udal gobernua: “Halako erasoak onartezinak dira”

Txirinboloko dendan egin dituzten pintadak onartezintzat jo eta babesa adierazi dio udal gobernu taldeak dendaren jabeari. “Ezer baino lehen, udal-gobernuak babesa adierazi nahi dio Txirinbolo dendako jabeari eta haren senideei, euren dendan azaldu diren mehatxuengatik, eta beharrezko laguntza eskaini dio. Halako

erasoak onartezinak direla argi dugu eta tokiz kanpo daude”.

Usurbilgo Sortu: “Gertaera hauek deitoratzen ditugu”

“Larunbatean gauean Txirinbolo dendari egindako pintaketa dela eta, Usurbilgo Sortuk gertaera horiek deitoratzen ditugula jakinarazi nahi diegu herritarrei”.

Usurbilgo EAJ-PNV: “Onartezina da eta nazka sortzen du”

Diana bat eta alde hemendik esaldia margotuz Txirinbolo

dendak jasan duen erasoaren aurrean, EAJ-PNVko udal taldeak “bere gaitzespenik gogorrena eta elkertasuna eta hurbiltasuna adierazi nahi dio Usurbilgo bizilagunari. Onartezina da eta nazka sortzen du ustez gaitziduta genituen gogorkeria eta mehatxuzko portaerak berriro ikustea gure kaleetan. Badirudi usurbildar gehiengo handiaren iritziazen aurka dagoen norbaitek iragane indarkeria eta mehatxu garaia faltan botatzen dituela”, azaldu du talde abertzaleak.

Ildo horretatik zinegotzi jeltzaleek “norberak modu askean pentsatu, sentitu eta bere iritzia mehatxu eta indarkeria gabe adierazi dezakeen herrietan bakean bizitzeko eskubidea” aldarrikatzen dute. Horregatik guztiagatik, dendak jasan duen erasoaren aurrean udalari eskatzen diote adierazpen garbi bat egin dezala eta aurreratzen dute ekintza hau salatzeke udalak antolatzen duen ekitaldian parte hartuko dutela.

Errausketaren aurkako salaketa, Tour Alternatibaren ongi etorrian

Ekainaren 9an Parisen abiatu zenetik lau hilabeteetan eta 200 etapen egin ostean frantziar estatua zeharkatu duen klima aldaketaren aurkako Europako mobilizaziorik handiena, “Tour Alternatiba” bizikleta martxa Donostiara helduko da ostiral honetan “Aldatu dezagun sistema, ez klima!” aldarripean.

Gipuzkoako hiriburuan harrera ekitaldia antolatu dute martxa datorrela eta. “Gu ere bizikletara igoko gara, kontsumo arduratsua eta ekonomia sozial eraldatzaila sustatu, eta klimaren kontra doazen Zubie-



Tour Alternatiba bizikleta martxa Donostiara helduko da ostiral honetan, “Aldatu dezagun sistema, ez klima!” aldarripean.

tako erraustegia eta Donostiako metroa salatzeke. Zatozi!”, luzatu dute gonbita denetarik eragileek. Ekimenari babesa adierazi dioten artean dira,

Zubietako Herri Batzarra, Zubietako Lantzen, Gipuzkoa Zutik edota Errausketaren Aurkako Mugimendua.

Erraustegiaren aurkako sa-

laketa plazaratuko dute hain zuzen, “Gipuzkoan aldaketa klimatiko eragiten duten gasen igorle nagusia izango delako”.

Urriak 5, ostirala

■ 18:00 Bizikleta martxa Donostiako Katalunia plazatik, 3-4 km hiriburuan barrena.

■ 19:00 Etaparen amaiera eta harrera Gipuzkoa plazan. Ekitaldia.

■ Erakusketa informatiboa 12:00-20:00 artean, Gipuzkoa plazan.

■ Informazio gehiago: bizimugi.eu alternatiba.eu

Loiolako militarren kuartela Zubietara lekuz aldatzearen aurka agertu da udalbatza

Donostiako Udalak Loiolako militarren kuartela Zubietara lekuz aldatzeko Espainiako Gobernuari eginiko eskaeraren aurka agertu zen udalbatza irailaren 25ean egin zuten osoko bilkuran. Gai honi lotutako mozioa aurkeztu zuen EHBilduk. Mozio honen alde bozkatu zuten bakarrik gobernu taldeko kideak izan ziren ordea. EAJ-ko ordezkariak abstenitu ziren, PSE-k aurka bozkatu zuen.

Donostiako udal-gobernuari eta bereziki hiriburuko alkate Eneko Goiari zuzenduriko eskaera argi bat jasotzen du mozioak; “Loiolako kuartelak Zubietara lekualdatzeko asmoari uko egiteko. Ez ditugu militarrek gure herrian eta bere inguruan izan nahi. Gainera, ez du zentzurik Europako herrialde militarizatuenean kuartel berri bat sortzeko proposamenak, ez Zubietan, ez Loiolan, ez inon. Horregatik, eztabaidaren muiari heltzeko eskatzen diogu, hau da, nola lortu Gipuzkoaren eta Euskal Herriaren desmilitarizazioa. EHBildu prest dago zeregin horretan bide-lagun izateko”.

Mozioaren bidez, udalbatzak “dei egiten die Donostia eta Gipuzkoako ordezkari instituzionalei Zubietan bakean uzteko eta zubietarrei aditzeko. Proiektuok bertan behera utzi eta zubietarren etorkizuna zubietarren esku uzteko eskatzen diegu”.

Eskuzaitzetan proposatu diren proiektuen eskalak eta dimentsioak Donostia gainditzen duenez, “ezinbestekoa da eskualdearen iritzia aintzat hartzea”. Donostiako Udalak kuartel militarren leku aldaketaren proposamena “Donostiatik Donostiara” eta “gainerako guztiak erreparatu gabe” proposatu



Zubietako Herri Batzarreko kideak hurbildu ziren irailaren 25eko osoko bilkurara.

MOZIOAN JASOA

“Udalbatzak dei egiten die Donostia eta Gipuzkoako ordezkari instituzionalei Zubietan bakean uzteko eta zubietarrei aditzeko”

duenez, Eusko Jaurlaritzari eta lurralde antolaketa arduraduneri esku hartzea eskatzen die.

Gai nahasketa, EAJ-ren esanetan

Jeltzaleen bozeramaile Josune Urkolaren esanetan, mozioak bi gai nahasten ditu; desmilitarizazioa eta Loiolako kuartel militarren leku aldatzea. Lehenengo gaiari dagokionean EHBilduren bidelagun izan daitezkeela zioen Urkolak, mozio bozkatu aurreko adierazpenen txandan. Baina nabarmentzen zuenez, udal-lekue orohar, beren interes eta beharren arabera jokatzeko dute, “hala egiten dute eta hala egin behar dute”. Ondorioz, gaiok ezin dira bere ustez sinpletasunez jorratu. Horregatik eta aipatu bi gai nahasten dituelako iragarri zuen bozketa aurretik, EAJ abstenitu egingo zela EHBilduk aurkezturiko mozioaren aurrean.

PSE, Donostian etxebizitzak eraikitzea lehenestearen alde

Mahai gainean zutena ez da gai berria, PSE-ren bozeramaile Fermin Oruek zioenez. Egungo eta aurreko Donostiako alkateak, Espainiako Gobernuko ministro aldaketa egon deno hamaika bidaia egindakoak direla gogorazten zuen. Militarren kuartelaren leku aldaketaren eskakizuna aspaldiko kontua dela zioen, baina erantzuna beti berbera; ez dela aintzakotzat hartu izan. Bere alderdiak Donostiako Udalean duen taldeak maiatzean mozio bidez, hiriburuko Udaleko osoko bilkuran kuartela beste leku batera aldatzea proposatu zuela zioen, egunotan zabaldu den bezala, Martutene eta Astigarraga arteko lur eremu batera.

Loiolako egungo kuartel militarren lur eremua Donostiak babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko behar duela nabarmendu zuen. Eta mozio bidez, leku aldaketaren aurka agertuta ere, leku aldaketaren aurkako eskaera ez dela aintzakotzat hartuko. “Kuartelak ez Zubietan, ez inon” ez dituela nahi adierazi zuen. Baina “gauza bat nahi duguna da” eta

bestea zein den errealitatea. Horregatik, kuartela lekuz aldatzen ez bada, eta Loiolako eremu horretan babes ofizialeko etxebizitzak ezin go lirakekeela eraikei esanda, mozioaren aurka bozkatzearabaki zuen.

EHBildu oposizioari: “Herri interesen kontra ari zarete”

Oposizioako udal taldeen adierazpenak entzunda, udal gobernu taldeak hartu zuen hitza. Udalak inguruko herriekin harremanak daukela jakinik, ingurukoak oso kontuan hartu behar dituela gogorarazi zien Xabier Arregi alkateak EAJ eta PSE-ri, “norberekeriaz jokatzeko da bestela”. Horregatik zioen, “udal guztiak behartuak gaude gure ingurua kontuan hartzerako”. Eta hori, “elkartasun ariketa sinple” bat baino ez dela gogorarazi zien oposizioako udal taldeei.

Gai honetan, norberekeriaren adibide argizat jo zuen Donostiako Udala. Belartza eraikiz, erraustegiarekin edo kuartel militarrekin, ez usurbildarrak ezta “zubietarrek ez dituzte aintzat hartzen”, proiektuok kaltetzen dituztela zioen. “Mingarria da entzutea, gure lurak eskaini dituztela kuartela” Zubietan kokatzeko. Eta argi adierazi zuen, ingurukoak kontuan hartu gabe norberekeriaz “jokatzeko duenak ez du gure errespeturik merezi”.

Eta zuzen adierazi zien udal bakoitzak bere interes eta beharren arabera jokatzeko duela adierazi zuten oposizioako kideei. Legegitzaile hasieratik herri gisa jokatzeko gonbita luzatu arren, “herri interesen kontra, alderdi interesekin jokatzeko” egotzi zien.

Zubietako Herri Batzarra: “Desmilitarizazioaren alde bagaude, kuartela ez da inon behar”

Loiolako militarren kuartela Zubietara lekuz aldatzeko EHBilduk udalbatzarraren irailaren 25ko osoko bilkuran aurkeztu eta gehiengo osoz onarturiko mozioaren lekuko izan ziren zenbait zubietar, tartean, Herri Batzarreko ordezkariak. Udal ordezkarien adierazpenak entzunda, hitza hartzeko aukera izan zuten.

Zubietako egungo alkate Narciso Arrillaga mozioa aurkeztu eta onartzearekin, “guri arnas pixka bat ematea eskertzekoa da” zioen.

Baina ulertezintzat zeritzon, udaleko oposizioa kideen jarrrera. “Desmilitarizazioaren alde bagaude, kuartela ez da inon behar. Eskaria egin zaie (Donostiako Udalarari buruz ari da) kuartela Zubietan kokatzeko, zergatik ez eskatu kentzea denok ados bagaude?”.



Narciso Arrillaga Zubietako herri batzarreko alkateak balorazio bat egin zuen udal ordezkarien aurrean.

FERNANDO ITURRALDE

Donostiako Udala zubietarreko Judasen papera betetzen ari dela zioen. “Txanpon eta etxe batzuen truke saltzen ari da Zubietan”

Haserre adierazi zuen, eta gogorarazi, bai Donostia zein

Usurbilgo Udalek zubietarreko dituzten betebeharrak. Bi udalek eta Herri Batzarrek arautua dute, Zubietan egingo den edozer aurrez jakinaraztearena, zubietarrak kontuan hartuta beti ere. “Derrigortuak daude informatzera eta gu entzutera”. Bestelakoa da ordean bistan denez, egungo errealitatea. Ikusi besterik ez da, Zubie-

ta gainean kokatzen ari diren Gipuzkoako hainbat azpiegitura; erraustegia, makrokartzela lehen, militarren kuartela...

Fernando Iturraldek laburbildu zuen egungo panorama. Donostiako Udala zubietarreko Judasen papera betetzen ari dela zioen. “Txanpon eta etxe batzuen truke saltzen ari da Zubietan”.

Gipuzkoa Zutik: “Protestatzen jarraituko dugu”

Irailaren 23ko erraustegira eginiko buzo zurien martxan Ertzaintzak herritarren aurka indarkeriaz jokatu izana salatu du Gipuzkoa Zutik mugimenduak eta erantzuleztat jo ditu Donostiako Udaleko, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako agintariak.

Hainbat zauritu eragin zituen Ertzaintzaren bultzada eta kolpeak. “Batzuk ospitale-ra joan behar izan zuten”, Gipuzkoa Zutik mugimendutik sare sozialen bidez berri eman dutenez.

Helburua argia zen antolatzailen esanetan, herritarren martxa eragozteak. “Poliziak mendi bide guztiak itxi zituen. Agindua, protesta erraustegira ez heltzea zen”, nabarmendu

dute. Ertzaintzak lurrez nahiz airez kontrolatu nahi izan zuen erraustetaren zero gunea. “Mendia literalki poliziak hartua zuen, bitartean helikopteroa gure buruen gainean izan genuen ordu luzez”.

“Mendia poliziak hartua zuen”

Abiapuntuan, Zubietan bertan bi zutabeetan banatu zen martxa. Goian, Ertzaintzak mendi bide guztiak itxita eta ingurunea hartua izan arren, Gipuzkoa Zutik mugimendutik oroitarazten dutenez, “zutabe bat bestearekin batzen ahalegindu zen basoa zeharkatuz, baina mendia poliziak hartua zuen. Egoeraren gaineko kontrola galtzen hasi zirenean, bultzaka hasi ziren basoan. Tentsioa gehitzen zi-

hoan. Jendeak amore eman ez eta aurrerantz tinko segitzeko asmoa zuela ikusita, poliziak indarkeriaz jokatu zuen inposizioaren aurka borrokatzen ari ziren herritarrei”.

Ordurako “protesta erraustegi kriminalera heldua zen. Poliziak bertatik bota nahi zituzten. Jendea eseri zen eta ezkutu zein borren kolpeak sufritu behar izan zituen. Tiro hotsak ere entzun ziren”.

Baina erronka bete zutela nabarmendu dute. “Igandean Ertzaintzak ez zuen Zubietako martxa erraustegira heltzerik nahi. Baina... adin guztietako herritarrok, kolpeak kolpe, heldu ginen. Biba gu!”.

“Geratu daiteke”

Buzo zurien martxaren os-



Gipuzkoa Zutik mugimendutik iragarri dutenez, “eusteko garaiak dira eta eutsiko diogu”.

tean, Gipuzkoa Zutik mugimendutik iragarri dutenez, “eusteko garaiak dira eta eutsiko diogu”.

Erraustegia oraindik geratu daitekeela gogorarazten digute. “Oraindik obren %11 baino ez dute egin. Geratu daiteke, alternatibak badaudelako eta hainbeste manipulazioarekin nazkatuak gaudelako”. Eta iragarri dutenez, “gure bizitzaren aurkako proiektuen kontra protestatzen jarraituko dugu”.

“Usurbilen bizi eta erosi!”



Herrian erosteak duen garrantziaz kontzientziarazi nahi gaituzte dendari eta ostalariek.

Aldaketa nabaria eman dute Usurbilgo erakusleiohoek. Oihal beltz eta mezu kezkagarriekin estaliak egotetik mezu eta globo koloretsuekin apaintzera igaro dira herriko ostalari eta dendariak bere saltokiak, egun gutxi batzuen tartean.

“Zer nolako Usurbil nahi duzu?”, “Ez dakigu zer du-

gun galtzen dugun arte” edo “Herrian erosteak handi egiten zaitu” gisako mezuetatik, “Usurbilgo herriari kolorea ematen diogu”, “Desberdinak gara” dioten mezueta igaro gara. Eta mezu baten garrantzia azpimarratu beharra dago, ziur aski gainerakoak laburbildu eta herritarrei dei zuzena egiten diena; “Usurbilen bizi eta erosi!”.

Herri bizitza jokoan

Herrian erosteak duen garrantziaz kontzientziarazi nahi gaituzte dendari eta ostalariek. Gure kontsumo ohiturek baldintzatzen dutela, herriaren garapen soziokoekonomiko zein kulturean giltzarriak diren tokiko merkataritza eta ostalaritzaren etorkizuna. Herri giro bizi ala hila izatea.

Herriko merkataria eta ostala-

riek abiarazitako sentsibilizazio kanpainaren baitan bideratu da erakusleioetako ekimena. Eskualde mailako egitasmoa da. Udal zein tokiko merkataria eta ostalarien elkarteak inplikatu dira, dendari eta ostalarietara batera. Elkarlan honetan sakondu nahi dute, tokiko merkataritzak eta ostalaritzak eskuartean dituen erronkei batuta eta sendoago erantzuteko.

Trikitixa doinuak Artzabalen



Usurbilgo zenbait txoko sarritan hautatzen dira ekimen ezberdinak antolatzeko eskenatoki gisa, beste batzuk ez hainbestetan. Artzabal eremua esaterako. Gunea girotzeko elkarlanean dihardute zonalde honetan kokatuak diren Laukote, Guria eta Artzabal establezimenduek. Uda aurretik egin bezala, ikasturte

berria abiatzearekin batera, irailaren 30ean Imuntzo eta Beloki gonbidatu eta erromeriz girotu zuten berritzen has-tear duten Artzabalgo plaza. Hilabete honetan bertan abiatzekoak ditu, Udalak eginiko obra hauen esleipen deialdira aurkezturiko Imaz S.A. enpresak, plazako zoladura konpontzeko lanak.

Plaza kantuz girotu zuten



Lepoaren bueltan jantziak zaramatzaten zapiek ezin egoikiago zioten moduan, Usurbil kantuz girotzera itzuli ziren plazara irailaren 29an. Udako etenaldiaren ostean, hileroko ohiturari helduta berriz, Kantu Taldea afalaurreko pote ordua girotzen aritu zen Kaxkoan barrera. Errepaso ederra eman zioten euskal kantutegiari.

Aurrerantzean, hilabetero azken larunbatetan irtengo dira kantu-jiran. Urrian orde, arratsaldean ez, eguerdi partean baizik, hilaren 27an, 12:30etan Mikel Laboa plaza-tik. Gogoan izan bestalde, astelehenero biltzen dira kantu zaleak entsegu saioetarako, 18:00-19:00 artean Agerialdeko musika gelan.

Pirritx, Porrotx eta Marimotots Zubietako Eskola Txikian



Irailaren 26an pailazoen bisita jaso zuten. 'Borobilean' DVDko klip batzuk Zubietan grabatu ziren eta horiek erakustera hurbildu ziren Eskola Txikira.

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoei 'Borobilean' izeneko DVDa plazaratu dute. Tolosako Leidor Antzokian zuzenean grabatutako emanaldiaz gain, 'Borobilean' diskoko kantuen

bideoklipak batu dituzte bertan. Guztira hamabi klip egin dituzte eta horietatik bost Zubietako Eskola Txikian grabatu zituzten. Duela aste batzuk jarri zuten DVDa salgai. Azken egunotan ordea, kli-

pak grabatu zituzten herrietan izan dira bisitan. Irailaren 26an, esker ona agertzeri eta Zubietako umeekin eta gurasoe-kin grabaturiko klipak erakustera hurbildu ziren Eskola Txikira.



Nafarroako 'piko de peralta' piper ekologikoa



Piperra 2 eratan eska daiteke:

gordinik; 2.10€/kg
hutsean poltsaratua; 4.30€/kg

Eskariak 2018/10/11 arte jasoko dira.

Alkartasuna Kooperatiban:
Atallu industrialdea 26, Usurbil
943 361 114 eta 630 938 027
alkartasuna@usurbil.com
www.alkartasuna.eus

Erraustegia geratzeko manifestazioa deitu dute eragile anitzek, urriaren 27an Donostian

Zubietan eraikitzen ari diren Gipuzkoako Erraustegia geratzeko manifestazio jendetsu eta bateratua deitu zuten astearte goizean Donostiako udal-txean, Erraustegiaren Aurkako Mugimendua, GuraSOS, Gipuzkoa Zutik, GEIS/OEIT, Eguzki, Greenpeace, ERNAI, ELA, LAB, CCOO, EHNE, ESK, STEILAS, HIRU eta “No + Precariedad” eragileek. Urriaren 27an (larunbata) arratsaldeko 17:00etan, Donostiako Menduurren plazatik abiatuko da mobilizazioa, “Erraustegia gelditu!” lemapean.

Gizartearen aniztasuna islatuko du manifestazioak, hortik eragile anitzek deitu izana mobilizazio hau. Eta erraustegiko lanak geratu, kontratua eten edo deusezteko ere arrazoi anitz daudela nabarmentzen dute. “Taldea bakoitzak bere arrazoiak jarri ditu mahai gainean; ingurumena, osasuna, ekonomia, jasangarritasuna, demokrazia, etorkizuneko Europaren bideari eta ekonomia zirkularrari eustea...”. Baina



Erraustegia gelditu lemapean egingo da manifestazioa. Eragile ugari egin dute bat.

DEITZAILEAK

“Osasuna, ingurumena eta herritarren interesak lehenetsi! Erraustegia gelditu orain! Kontratua eten”

aldarrikapenean denek bat egiten dute. “Bada arrazoi bat gizarte osoak partekatu dezakeguna: garaiz gaudelako, mahai gainean aukera guztiak jarri behar direlako eta inposaketarik onartzen ez dugulako, sinatutako kontratuari

ez! Osasuna, ingurumena eta herritarren interesak lehenetsi! Erraustegia gelditu orain! Kontratua eten!”.

“Geratu daiteke, garaiz gaude”
Gogorarazten dutenez, urte honetan zehar eta arrazoi anitz tarteko, izan osasuna, ingurumen baimenak, jasangarritasun ekonomikoa, legediaren errespetua... “atzerriko herrialdeetan, gutxienez 18 erraustegi itxi edo geratu dituzte. Eta estatuan mailan beste 4”.

Gipuzkoakoa ere geratzea posible dela azpimarratzen

dute eta oraindik garaiz gaudela. “Gure etorkizunak eta ongizateak merezi duelako, gipuzkoarrok kalera atera behar dugu, erraustegia gelditu! exijitzera”.

“Erraustegia geratu!” manifestazioa

■ Eguna: urriak 27, larunbata.

■ Ordua: 17:00.

■ Tokia: Donostiako Menduurren plaza (Euskotrenek Amaran duen geltoki parean, Urumea ibaiaren ondoan dagoen plaza).

■ Aldarria: “Erraustegia gelditu!”.

Errausketaren Aurkako Mugimenduaren salaketa, buzo zurien martxaren harira

Irailaren 23an Zubietako erraustegiko lanetara eginiko martxan Ertzaintzak izandako jarrera salatu du Errausketaren Aurkako Mugimendua. “Gipuzkoa Zutik-ek antolatutako mendi martxa baketsuaren aurka Ertzaintzaren operatibo zabal eta handi baten bitartez, helikoptero eta guzti, adin guztietako ehunka herritarren protesta baketsua oztopatu eta kolpean bitartez jazartu egin zuten. Dozenaka zauritu izan ziren, horietako batzuk ospita-

lera joan behar izan zuten”.

Gertakarien aurrean, “klase politiko eta mass media gehien isiltasuna eta konplizitatea” salatu du Errausketaren Aurkako Mugimendua. Erantzuletzat jotzen dituzte EAJ eta PSE-EE-ren buruzagiak, “baina zera galdetzen diogu ere gure buruari. Non daude, orain urte gutxi batzuk bere balkoietan hondakinen poltsak zintzilikatu zituzten herritarrak eta kalera atera zirenak arazo honi irtenbidea lortzeko beharrezkoak

diren hondakinen bilketa eraginkorren aurka? Non daude beraien inposizio salaketak? Isilik eta errepresioa eta inposizioa onartuaz daude gaur egun”.

Buzo zurien martxa eta irailaren 21etik 23ra Zubietan izandako Iraultza Txikiaren Akinpada, hurrenez hurren antolatu zituzten Gipuzkoa Zutik eta Lurralde Askea eragileak zoriondu dituzte. Eskerrak helarazi dituzte baita, “nazioartetik ailegatu den elkartasun eta gertutasuna-

ri”. Bereziki mundu mailako 900 erakunde biltzen dituen errausketaren aurkako nazioarteko plataforma GAIA-ri. Herritarrei azkenik, ez etsitzea eskatzen diete. “Nazioartean gero eta erraustegi gehiago gelditzen ari dira. Orain gutxi, Italian 12 egitasmo gelditu dituzte lege. Zubietako erraustegia gezur-rean, ustelkerian eta kriminalitatean oinarrituta dago. Eutsi goiari. Animo handiak guztiei”.

Euskaraldirako bidelagunak biltzen

Ez utzi biharko, eman izena ahal bezain laster Euskaraldirako. Gure hizkuntzaren erabilera areagotzeko ekimenarekin bat egiten hasiak dira jada usurbildarrak. Baita eragile eta talde desberdinak ere. Ondoko argazkia duzue horren guztiaren erakusgarri.

Edota Euskaraldia sustatzen ari den taldetik helarazi diguten datu hau; irailaren 21etik 23ra ospatu ziren Santueneko jaien baitan, Eli eta Patxik girotuta auzoan jarri zuten mahaietan, eta ordubete pasatxoko tartean, 57 izen emate erregistratu zituzten. Haietatik 46 Ahobizi gisa jarduteko, beste hamaikak Belarriprest-en paperean aritzeko.

Nola parte hartu?

Hori argi izan behar duzue, izen ematerakoan. Usurbildarra izan eta 16 urte beteak badituzu, Euskaraldian nola parte hartu nahi duzuen erabaki behar duzu:

■ Ahobizi: ulertzen duenari euskaraz egingo diot, hark erdaraz erantzun arren. Ezezagunei lehen hitza, gutxienez, euskaraz egingo diet.

■ Belarriprest: egidazu euskaraz, nik ulertzen dut eta. Agian erdaraz erantzungo dizut, baina zuk niri euskaraz egitea nahi dut.

Izen ematea:

NOAUA! K.E.-ren egoitzan, Potxoenean, atxikimendua adierazi duten eragileen egoitzetan edo usurbil.euskaraldia.eus atarian.

Informazio gehiago:

usurbil@euskaraldia.eus
usurbil.euskaraldia.eus
Facebook: Euskaraldia Usurbil
Twitter: @EuskaraldiaUsurbil
Youtube: Euskaraldia Usurbil



Euskararen erabilera areagotzeko ekimenarekin bat egiten hasi dira herri eragileak. Endika Abril Errebote Txapelketako finalaren amaieran argazki hau atera zuten Zubietako jokalariek eta partida ikustera hurbildu ziren herritar batzuk.

HASI DA IZEN-EMATEA

**“Santueneko jaien baitan,
ordubeteko tartean,
57 izen emate
erregistratu zituzten”**

Gurasoentzako euskara klaseak

Urriaren 1ean abiatu zuten ikasturte berria Etumeta AEK euskaltegian. Oraindik orain matrikulazio epeak zabalik

segitzen du halere. Besteak beste, Udarregi Ikastolarekin eta Usurbilgo Udalarekin elkarlanean gurasoentzako antolatu duten euskara ikasteko klaseetarako. Guztira 100 orduko ikastaroa izango da, urriaren 16an hasi eta maiatzera arte luzatuko dena. Astean bina orduko bi saio eskainiko dira arratsaldean. 2-12 urte arteko haurren gurasoek izango dute lehentasuna. Izen emateko azken

eguna, urriaren 5a. Inskripzio orria Udarregi Ikastolan eskura daitezke eta beteta idazkaritzan edo euskaltegian utzi. Mailaketa-froga urriaren 10ean, 14:30-16:30 artean, Etumeta AEK euskaltegian. Prezioa; 100 euro. “Baina klaseen %80a etorritz gero, matrikularen %100-eko diru-laguntza emango du Udalak, ikasturte amaieran, beti ere Udalaren diru-laguntza deialdiaren arabera”.

“Catalunya, seguim amb vosaltres”

2017ko urriaren 1ak bizi asko segitzen du guztion oroimenean. Data are ahaztezinagoa Kataluniarentzat. Urtea bete da katalanek haien etorkizunaz erabakitza irten ziren egun historiko hartatik. Urtemuga egunerako elkartasun elkarretaratzeak deitu zituen Gure Esku Dagok, “Askatasuna erabakitzea da” aldarriean. Usurbilgoa Mikel Laboa plazan egin zuten. Mezu argi bat helarazi zitzaion Kataluniari eta kata-



Gure Esku Dagok antolatu zuen asteleheneko elkarretaratzea.

lanei, urtemuga egun berezi amb vosaltres” (“Catalunya, horretan: “Catalunya, seguim zuekin segitzen dugu”).

Jaietako lehen asteburua dute Aginagan

Urriak 4, osteguna: San Praixku Eguna

- 11:00 Meza nagusia.
- 12:00 Jubilatuen hamaiketako Aginaga Sagardotegian, bertsolariek alaitua.
- 17:00 Txupinazoa Eliza Zaharreko balkoian pregoi eta brindisarekin, txanpaina gure kontu!
- Ondoren, poteoa eta buruhandi bizkor bizkorak.
- 18:00 XVI. Gizonezkoen pilota finala.
- 19:30 Sardina eta sagardo dastaketa musikaz alaitua.
- Bitartean, XXXVI. Toka Txapelketa herrikoia.

Urriak 5, ostirala: Umeen Eguna

- 10:00 Umeen jokoan hasiera.
- 13:00 Umeen bazkari goxo goxo, mmm...
- 14:30 Umeen karaokea, eta noski, eguraldi bikaina gure zain.
- 16:00 Puzgarriak.
- 18:00 Txokolate banaketa eta buruhandi bizkor bizkorak.
- 18:30 Ur zezenaren entzierroa, sagardotegitik.
- Ondoren, apar festa!
- 22:00 'Oreina' filmaren proiektzioa Eliza Zaharrean. Koldo Almandoz zuzendaria bertan izango da.

Urriak 6, larunbata: Gora Herria Eguna

- 11:00 Txosna irekiera eta trikipotea hamaiketakoarekin Eliza Zaharrean.
- 12:30 2019an Aginagan ospatuko den eskola txikien



Haur, gazte nahiz helduentzako ekitaldi ugari dago aurtengo egitarauan.

ELKARTASUN EKIMENA

“Urriko lehen bi larunbat gauetako kontzertuen aurretik, bokatak jarriko dituzte eskuragarri. Hortik ateratako laguntza 2019ko ekainaren 9an Aginagan ospatuko den Eskola Txikien Festara bideratuko da”

festaren logoaren aurkezpena.

- 13:00 Kalejira Dj Bull-ekin.
- 14:00 Herri bazkaria. Sarrera: helduek 25 euro eta haurrek 12. Aginagako sagardotegian salgai.
- Ondoren, Elektropapo elektrotxaranga.
- Afalorduan, bokatak txosnan.
- 22:00 Dj Bull frontoian. Sarrera: 12 euro. Sarrerak salgai Aitzagan, Aginaga Sagardotegian eta Orioko Kolon Txikin.
- 23:00 Akelarre frontoian. Sarrera: 12 euro.
- 02:00 Gozategi frontoian.

- 04:00 Dj Bull eta Dj Elepunto, Eliza Zaharrean eta karpan goizaldera arte.

Urriak 7, igandea: Erronka Eguna

- 9:00 Tiro platoa.
- 17:00 Herriko dantzari txikien erakustaldia plazan.
- 17:30 Herritarren arteko herri kirolak, gazteak helduen kontra!
- 19:00 Piper frijitu eta sagardo banaketa herriko plazan.
- 19:30 Globo aerostatikoan igoerak egiteko aukera izango da plazan, alaa....

Urriak 12, ostirala: Oilasko Biltzaileen Eguna

- 06:00 Oilasko biltzaileen irteera soziedadetik, indarrak hartu ondoren.
- 12:00 Oilasko biltzaile txikien irteera Mapildik.
- 15:00 Oilasko biltzaileen bazkaria frontoiko karpan.
- 17:30 Txan magoa.

- 18:30 Perkusio tailerra.
- 20:00 Patata tortila txapelketa.
- 21:00 Gazte afaria karpan.
- 22:00 Andoni bakarlarria.
- 23:30 Oharkabe erromeria Eliza Zaharrean.
- 02:00 Dj Seymar.
- Ondoren karaoke baldarra.

Urriak 13, larunbata: Gaupasa Eguna

- 12:00 Molto-moto lasterketa.
- 13:00 Tira txinas jaurtiketa.
- 16:00 XXXVII. Mus Txapelketa Atarialde Elkartearen (izen ematea, 15:30-16:00 artean).
- 16:00 Partxis lehiaketa haurrentzat ludotekan.
- 17:00 Larrian Gozo taldea Eliza Zaharrean.
- 19:00 Elektrotxufila elektrotxaranga.
- 24:00 Los Zopilotes Txirriaos eta Laiotz.
- 04:00 Dj Txankleta eta Dj JoTaTxo.
- 07:30 Elektropapo elektrotxarangaren laguntzarekin errefus-bilketa!

Oharrak:

- Jubilatuen eskulanak ikusgai urriaren 4ean eta 7an goizez eta urriaren 4, 5, 6, eta 7an arratsaldean Apaizetxean.
- Aginagako Jai Batzordea ez da arduratzen egun hauetan gerta daitezkeen ezbeharrez.
- Usurbilgo Udalak babesturiko festak direnez, erantzukizun zibilararen aseguru poliza ere Udalak bereganatzen du.
- Antolatzailea: Aginagako Jai Batzordea.

ZENDOIA ENEA taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil

BORDATXO taberna

Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

txirriStra TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Martxa eta manifestazioa, pentsiodunen alde

A dinekoen Nazioarte-ko Eguna izan genuen urriaren 1a. Inoiz baino aldarrikatzailago dator aurtengoa, pentsiodunek mobilizazioak antolatu baitituzte Hego Euskal Herrian. Gipuzkoan, larunbat honetarako, urriaren 6an deitu dute belaunaldi artekoa izan nahi duen herrialde mailako manifestazioa Donostian. Baina aurrez, eskualdeetan ere hainbat dinamika iragarri dira. Horien artean, Gipuzkoako Pentsionisten Bira. Herriko jubilatuek elkarteek bat egin dute ostegun honetako deialdiarekin.

Usurbildik Lasartera

Ostegun goizeko 10:30ean finkatu dute biltzeko hitzordua Ingemarren ondoko errotondan. Handik oinez udaletxera joko dute. Udaletxean bizi duin baten aldeko eskaerak erregistra-



Urriaren 4an osteguna, goizeko 10:30ean, Ingemarreko errotondatik udaletxera joko dute eta handik Troiara. Troiatik Lasarte-Oriara bideratuko dira. Argazkia iaz eginiko agerraldikoa da.

tuko dituzte. Eta handik Troiara. Urte hasieran aurkeztu zen “Puntu beltzik ez” Usurbil seguru eta jasangarri baten alde lanean diharduen herri plataforma batuko zaie eta taldeko argazkia aterako dute, N-634 errepidetako puntu beltz horretan.

Lasarte-Oria aldera joango dira gero. Usurbilen egin bezala, bizi duin baten aldeko eskaerak erregistratuko dituzte aipatu udalerri horretan ere.

Goiza borobiltzeko, Aginaga Sagardotegian bilduko dira bazkaritarako. Otordurako izena aurrez eman beharko da Artzabalén, Gure Pakea Elkartearen bulegoan.

Urriak 4, osteguna

■ 10:30 Ingemarren ondoko errotondan biltzeko deia.

■ 10:45 Usurbilgo Udalean bizi duin baten aldeko eskaerak erregistratuko dira.

■ 11:30 Troiako N-634 errepide

parean argazkia aterako dute, “Puntu beltzik ez! Usurbil seguru eta jasangarria orain!” aldarripean.

■ 12:30 Bizi duin baten aldeko eskaerak erregistratzea Lasarte-Oriako udalean.

■ Ondoren, bazkaria Aginaga Sagardotegian. Izen ematea aurrez, Artzabalgo Gure Pakea Elkartearen bulegoan.

■ Deitzaileak: Usurbilgo Gure Pakea, Aginagako Arrate Elkar- tea, Santueneko Gure Elkar- tea eta “Puntu Beltzik ez! Usurbil seguru eta jasangarria orain” herri plataforma.

Urriak 6, larunbata

Manifestazioa 17:30ean Donostiako Alderdi-Ederretik. “Ez diezazutela pentsiorik lapurtu”, aldarripean. Deitzaileak: Adin-eko Elkar-teen Plataforma eta Gipuzkoako Pentsiodunen Mugimendua.

Ordutegi gehiago eskuratu nahi badituzu, hemen aurkituko dituzu:

* NOAUA! * Udaletxea

* Kiroldegia * Saizar * Eroski City * Potxoenea

* Sutegi liburutegia

* Zubietako Alamandegi taberna * Aginagako Arrate egoitzan

Edo deskargatu ezazu www.noaua.eus-etik/

tren eta autobus

noaua

/

ordutegia 18/19

Julen Chato Noriega, Bolivian kooperante

Bi hilabete Bolivian eman ditu. Euskadiko Gazteak Lankidetzan Eusko Jaur-laritzaren programaren bidez joan zen harantz uztaila hasieran. “Bi hilabeteko tarte ondo dago errealitatea ezagutzeko eta laguntza emateko”, adierazi digu Julen Chato Noriegak. Psikologia ikasketak bukatu berritan, terapeuta gisa aritu da Santa Cruz hiriko Emakumeen Etxean. Eta proiektu honetarako laguntza biltzen. Hango berri dakarkigu lerro-tara.

NOAUA! Zure proiektua aurkeztuko al diguzu?

Julen Chato. Kolonbian izan naiz, Santa Cruz hirian. Aipatzekoa, 400 metrotara egon naiz. Badaude lagunak altuera horretan egon direnak eta gaixotasunak izan dituzte. Nik ere izan nuen infekzio txiki bat. Hango Emakumeen Etxean lan ezberdinak egin ditut; lehen sorospen psikologikoak...

Psikologia ikasketak amaitu berritan joan zinen hara.

Bai. Lehen sorospenak egiten aritu naiz, eta bitartean datuak jasotzen, erabiltzaileek zituzten eskakizunen profil bat izateko. Psikoterapia egiten nien emakumeei. Baina baziren salbuespenak. Bazen adibidez, 18 urteko mutil bat. Ama eta aita galdu zituen, bere kargu zituen beste 7 anai arreba. Bakarrik zegoen. Bere aita izan zen azkena hiltzen, horrekin lotuta epilepsia bat garatu zuen. Nire egitekoa bera ebaluatzea zen, errehabilitazio pixka bat egitea, eta batez ere bere anai arrebeak halakoetan nola jokatu azaltzea. Komunitate batean bizi zen, lau ordu behar zituen etortzeko, beste lau itzultzeko. Oso gutxitan ikusten nuen.



Psikologia ikasketak bukatu berritan, terapeuta gisa aritu da Boliviako Santa Cruz hiriko Emakumeen Etxean, eta proiektu honetarako laguntza biltzen.

JULEN CHATO

“Santa Cruzeko Emakumeen Etxeak salaketak bideratu eta prozesu judizial bat doan aurrera eramatea ahalbidetzen die. Zerbitzua mantentzea da haien erronka”

Emakumeen Etxea, emakumeen babesleku eta haien eskubideen defentsa gune bezala definitu daiteke?

Zegoen aukera bakarra edo azkena. Abokatu bat izatea oso garestia da eta ezin dute izan. Emakumeen Etxeak salaketak bideratu, prozesu judizial bat doan aurrera eramatea ahalbidetzen die. Zerbitzua mantentzea da haien erronka. Orain psikologorik ez dute. Lehen bai baina orain oso kasu puntual edo berezietan egiten dituzte terapia psikologikoak. Finantziario itur-

rien bila dabilta edonon.

Baliabideak murriztu egin dizkiete.

Hango gobernuak laguntza bat kendu die. Lehen emakume denak etxe honetara joaten ziren eta orain gobernuak Emakumeen Etxera joan aurretik Gobernuaren herri de-

fendatzailearengandik pasa behar dute. Handik polizia-rengana bidaltzen dituzte eta hor amaitzen da prozesua. Ondorioz, asko ez dira joaten Emakumeen Etxera eta horregatik dirua kendu diete. Gobernuagatik daude dauden egoeran. Aurrera segitzeko oso larri dabilta.

Emakumeak, egoera zailean

NOAUA! Ez zoritxarrez halako zerbitzu baten beharrik ez dagoelako.

Julen Chato. Erlijioarekin oso lotua dago gaia, familia oso idealizatua dute. Adibidez, gizonak familiako etxea utzi dezake baina emakumeak etxea uzten badu ez da gauza bera, espetxera joan daiteke. Kasuotan, emakume askoren nahia zen frogatzea ez dutela etxea utzi, baizik ezin zutela jasan etxean zuten egoera. Ez dute beste

aukerarik, errazena alde egitea da baina bere ondorioak ditu. Askok eskatzen dute horregatik legalki frogatzea, ez dutela etxea utzi. Abokatu bat zegoen kasuotan espezializatua, prozesu judizialak aurrera eramateko, aholkularitza judiziala emateko. Besteak dirua lortzeko proiektuak diseinatzen zebiltzan. Azkenean, eskaera kopurua oso altua da emakumeen aldetik eta ezin dituzte denak artatu.

Julen Chato: “Oso pozik bueltatu gara”

